



Lan merkatuaren oreka liberala



ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Kapitalismoan lana salgai bat da, beraz, ohiko ekonomialarien pentsamoldea jarraituz, eskaintza eta eskariaren arteko orekak bai prezioa, bai kantitatea erregulatu beharko lituzke. Agerikoa denez, hori ez da errealitatean betetzen. Emango balitz, lan harremanak leherraraziko lituzke. Horregatik, ohiko ekonomialariek indar handia jarri dute lan merkaturako berezitasunak azaltzen. Interpretazio horri gehitu behar zaio klase borroka ekuaziotik kanpo uzten duela.

XIX. mende bukaera arte sindikatuak debekatuta zeuden. Atzean logika liberal bat zegoen, elkarte eta sindikatuen existentzia bera ukatzen zuena, merkaturako askatasuna apurtzen baitute. Horren adibidea 1791ko *Le Chapelier* legea izan zen, 1864 arte Frantzia indarrean egon zena; Espainiako Erresuman antzeko zerbaite gertatu zen, 1868ko Errege Dekretu batek elkartzeko eskubidea onartu arte. Gerora, lan zuzenbidea garatuz joan zen, langile eta enpresariaren arteko gatazkak kudeagarriagoak bihurtzeko eta erakunde sozialistei indarra kentzeko, besteren artean. Zuzenbide honek *in dubio pro operario* printzipioa mahaigaineratu zuen: zalantzarik izanez gero, langilearen alde egingo dela. Langile eta enpresariaren arteko desberdintasun ekonomikoak eta langileen mendekotasuna aitortzen ziren. Teorian, lan harremanen ideia liberal zorrotza alde batera uzten zuen.

Klase kapitalistak edozein erreminta erabiliko du botere ekonomikoari eusten jarraitzeko, nahiz eta ordena liberala deuseztatu. Lan merkatu liberal bat nahiko lukete

Hori guztia jakinda, nabaria da nola boteretsuek lan harremanen marko liberalera bueltatu nahi duten. Bai enpresa kultura berrien bidez, lan harremanak gehiago individualizatuta, bai sindikatuen funtzioak hustuta, horien helburuak gai ekonomikoetara mugatuta, oso murriztailea den negoziazio-esparru baten barruan. 2018an Confebasken horrela adierazi zuen, sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordetzeari buruzko Errege Dekretuaren proiektuaren inguruan. Azken urte hauetan patrioen joera hori indartzuz joan da, ohikoen laguntzaz: botere exekutibo eta judiziala.

Azpimarragarria da norabide horrek Euskal Herri penintsularrean hartu duen indarra. 2021. urtean, Bilbon,

langile migratu bat lan gatazka batean defendatzeagatik, hemeretzi urteko espetze zigorra eta kalte-ordaina eskatu zitzaizkion. Orain dela gutxi Gijoneko La Suiza gozotegiaren kasuan Espainiako Auzitegi Gorenak epaia argitaratu du, sindikalistak espetxera bidali ditu eta, berriro ere, milaka euroko kalte-ordainketa ezarri die. Azken kasu horretan, edozein lan gatazkan erabiltzen diren oinarriko erremintak, elkarretaratzea egitea eta pasatzen den jendeari egoera jakinaraztea, jo-puntuari jarri dira. Askatasun sindikalaren aurkako eraso oso larria da, sindikatu txiki baten aurka egin dena, baina guztioi eragingo diguna.

Eraso horien sustraian klase borroka dago. Azken finean, patronalen lubakian dauden artean, hasieran aipatutako lan merkatuaren funtzionamendu liberala da helburu utopikoa. Lotsa galdu dutenek, ultraliberalek, argi dute hori aplikatu behar dela. Indartzen ari dira.

Bide-orri horrek, aldiz, ez gaitu leku on batera eramango. Karl Polanyi-k aipatzen zuen bezala, klase kapitalistak edozein erreminta erabiliko du botere ekonomikoari eusten jarraitzeko, nahiz eta ordena liberala deuseztatu. Lan merkatu liberal bat nahiko lukete, eta langile erresistentzia murrizta. Baina horrek neurri autoritarioetara garamatza, ikusten ari garen bezala. Lan munduan hori dago jokoan, ez da soilik eskubide kontu bat. ●